

hondo-hondotik

Iñaxio Etxeberria eta Miren Azpilikueta

(Burujabetzaren aldeko desobedientzialariak)

Zarauzko Desobedientzia Zibilaren Egunak

Desobedientziaz aske gara. Hau da Zarautzen ospatuko diren desobedientzia zibilaren egunentzat aukeratutako leloa. Hilabete honetako 13 eta 14an, herri mugimendu desberdinak Zarauzko ikastolan bilduko gara desobedientzia zibilari bultzada handi bat emateko asmoz.

Hasiera batean, jardunaldi hauen helburua, desobedientzia zibila nahiz ekintza zuzen ez bortitzaren inguruan dabilen taldeen arteko topaketa bat antolatzea zen. Gaur egun ordea, egun hauen antolaketan burutu dugun elkarlana dela eta, helburu hau gaindituta geratu da, talde desberdinen artean kolaborazio sendoak sortu baitira. Horrela, antolaketan parte hartzen ari garen taldeak gure lehen ekintza bateratu, publiko eta ez bortitza egingo dugu. Ekintza honen mezua ere denon artean adostutakoa izanik, etorkizunera begira itxaropenez beteriko aro berri bat zabaltzen ari dela sumatzen dugu.

Dena den, talde desberdinen jatorria anitza izanik, desberdintasunak ere baditugu, noski. Desobedientzia zibila bera, ere ulertzeko modu desberdinak ditugu eta dudarik gabe topagune honetan antolatuko diren eztabaida-gunetan hauek guztiak azaleratuko dira. Talde bakoitzak bere nortasuna gorde behar duela pentsatzen dugu, baina geure ekimenak osagarriak izatea lortuko bagenu, aurrerapauso handia suposatuko luke desobedientzia zibilarentzat.

Desobedientzia zibila eraikuntza nazional eta sozialerako. Hau da burujabetzaren aldeko desobedientzialariei dinamizatzea egokitu zaigun eztabaida-tailerra. Bertan, Euskal Herriak bizi duen gatazka gainditzeko helburuarekin bideratutako desobedientzia zibilaren estrategia batek izan beharko lituzkeen ezaugarrietaz eztabaidatuko dugu. Burujabetzaren aldeko desobedientzialariak gare-nok espainiar eta frantziar nortasun agiriari uko egin diegu eta keinu honekin Autodeterminazio eta nazionalitatearen ezagutza lortzeko ekimen konkretu bat abian jarri dugu. Desobedientzia zibileko keinu honek jatorri desberdineko pertsonak elkartu gaitu, kanpaina honek eta etorkizunean etorri daitezkeen besteek ezaugarri zehatz batzuk izan



Desobedientzia zibileko ekintza bat Iruñean.

beharko dituzte, ekimenak gizarteratu eta estatuen amore ematea lortzea ahalbidertuko dutenak. Eztabaida girotzeko asmotan, ideia batzuk plazaratuko ditugu, ez daitezela ulertu egia absolutuak bailitzan, eztabaida pizteko botatzen diren baieztapenak besterik ez dira eta desobedientzialarion artean ere, eztabaidatu eta adostu beharrekoak.

Desobedientzia zibila, indarkeriarik ezaren estrategian kokatzen dugu. Estrategia honetan, desobedientzia zibilarekin batera, kolaborazio eza, kontzientzia eragozpena, boikota eta ekintza zuzen ez bortitza aurkituko genituzke. Desobedientzia zibila guretzat, derrigorrezkoa edo inposaturikoa den zer baiten aurka kolektiboki eta publikoki aritzea da, lege edo araudi jakin batzuen kontra, alegia. Honekin ez ditugu indarkeri ezaren estrategian agertzen diren beste borroka tresnak gutxietsi nahi. Alderantziz, guztiz osagarriak direla deritzogu. Ekintza zuzenak desobedientzia zibileko ekimenen laguntzaile ezin hobeak bihurtu baitaitezke.

Ejertzitoari intsumisioa estrategiaren ardatza desobedientzia zibileko ekimen bat zen, zehazki derrigorrezko zerbitzu militarri uko egitea. Honekin batera ekintza zuzen osagarri asko burutu ziren, hala nola gobernu militarren aurrean buruturikoak. Ekin-

tza zuzen hauek gizarterari mezua eta balore antimilitaristak transmititzeko balio izan zuten. Udaletxe batzuk ere kolaborazio eza erabili zuten, intsumisioak gizarteraren babesa lortu bai zuten. Azkenik derrigorrezko zerbitzu militarra desagerraraziz eta ejertzitoaren imajina eta egoera kinka larrian utziaz.

Ez dugu inongo lotsarik gure ereduaren borroka antimilitarista dela esaterakoan. Eredu honekin ikasi duguna Euskal Herri berri bat eraikitzeke erabili nahi dugu. Benetako herri desmilitarizatu bat lortu nahi badugu, beharrezkoa izango da gatazkaren konponbidean inplikatzeko, gaur egun gatazkan diharduten bi poloak baitaude militarizaturik, militarismoa, armak, heriotzak, giza-eskubideen urraketa bezalako kontzeptuekin lotzen baldin badugu behintzat.

Intsumisioak bezalaxe, burujabetzaren aldeko desobedientziak ere hautsi egin behar du polarizazio ofiziala, gehiengo berrien bila jo behar du, partehartzailea izan behar du eta alderdikeri eta hauteskundearen interesen gainetik egon behar du. Herri mugimendu izaera beharrezkoa du mugimendu desobedienteak, alde batetik herri mugimenduak politikan arinak dira eta bestetik beraien artean lehiakortasunik ez dago eta alderdi politikoak beraien boto emailletatik at mezuak gi-

zarteratzeko dituzten zailtasunetatik libre daude.

Desobedientzia zibila, ekimen politikoa bezala ulertuta, arazoei aurre egiteko sustraizkoa (erradikala) den hausnarketa eta konponketa proposatzen du. Gatazkan inplikatzeko honen sustraietara edo gatazkaren ondorioetara jo daiteke. Guretzat sustraietara jotzea da eraginkorra, eta Euskal Herriak bizi duen gatazkaren sustraiak autodeterminazio eta nazio izaeraren ezagutza eza oinarritzen dira.

Desobedientzia zibila azken helburu zehatzak lortzeko tresna egokia den bezala, etorkizuneko gizartea definitzen joateko ere baliagarria da, sortu nahi dugun sistema mota hasieratik ezar baitezakegu praktikan geure espazioetan.

Nazio burujabetza eta gizarte burujabetza eskutik helduta doaz, bestalde; lorpen nazionalak lorpen sozialak dira definizioz: kultura, hizkuntza, zuzenbide markoa, heziketa... Areago baina, gure lanaren zentzua honetan datza, euskal sistema burujabea espainiar eta frantziar estatuekiko ezberdina izan dadila, berdintasunean gehiago oinarrituta, bizitzeko, eder eta alaiagoa.

Dudarik gabe, oraindik ideia eta iritzi asko eztabaidatu eta kontrastatu beharko ditugu. Garrantzitsuenak zera da, azkenaldi honetan bai ekintza zuzenaren inguruan bai desobedientzia zibilaren inguruan talde desberdinak elkartu eta ekimen berriak martxan jartzen ari garela. Guri dagokigunez, desobedientzialarien izenpean, jatorri desberdineko pertsonak elkartu gara. Espainiar eta frantziar nortasun agiriari uko egiteak elkartzen gaitu eta laister 100 desobedientzialarien asanblada egiteko asmoa dugu. Lehenengo 100 hauen artean herri mugimendu, alderdi politiko eta sindikatuetako ordezkariak zabal bat egotea lortu dugu. Hemendik aurrera elkargune desobedientzialari hau egituratu eta ekimena gizarteratzea izango da gure lana eta honetarako Zarauzko desobedientzia zibilaren egunetan ikasi eta entzundakoa oso baliagarria izango zaigu, gaur utopia bat besterik ez dena bihar errealitatea bilakatu dadin.

Nori bere egia

(Aurreko orrialdetik dator)

tzuk baliatzen badira behartsu horien, paria berri horien sentimenduez, bizitzan ezertxo ere espero ez dutenez, ezer galtzekorik ez dutelako? Hortaz, harritzekoa ote da Bin Ladenen diskurtsoa hortik elikatzea?

Testuinguru berean, harrigarria eta sinetsagarria samarra da Estatu Batuen eta Europako buruzagi eta hedabide gehienek bat-bateko iritzi aldaketa hori, di-da batean etsai bat aurkitu baitute: terrorismoa; lehenago, ordea, ez zirudien gehiegi kezkatzen zituenik. Gogoeta egin ote dute munduan –Kuban, Nikaraguan

edo... Afganistanen sobietarren aurka– bultzatutako eta egindako ezin konta ahala eraso, sabotaje eta erailketetan CIAk betetako eginkizunaz? Zergatik ahazten da hain erraz 1970eko urteetan sortu, prestatu eta bildu zizutela nazioarteko brigada islamistak, eta horietan, besteak beste, Osama Bin Laden izeneko bat hartu zutela?

Egun, hain erraz esan daiteke, Espainiako gobernuak etengabe dioen bezala, terrorismo modu bakarra dagoela? Ez ote dira konturatzen boteretsuek beren kasa ezarritako irizpide horrek gainerako munduan izan litzakeen ondorioez? Eta norbanakoaren aska-

tasunetan? Herrien autodeterminazio eskubidean? Nazio askapeneko borroketan?

Terrorista hitzaren erlatibotasuna argiago gelditzen da historia hurbilenera jotzen dugunean. Ikuspegi horrek, muturrera eramanda, esan nahiko luke edozein matxinatu, edozein errebolutari terroristatzak har litekeela. Eta, egia esan, logika hori ez da berria: Aljeriako gerran, bertako FLN eta horretako *fellaga*-k terroristak ziren frantziarrentzat; Frantziako erresistentziako kideak ere terroristatzat jotzen zituen Alemaniako okupazioko armadak; Menahem Begin terrorista izan zen britainiarrek Palestinan zuten agintaritzaren-tzat; azkenik, duela egun batzuk, Ariel Sharon oraindik gehiago esatera presatu zen: «Jasser Arafat da gure Bin Laden».

Bi pisu, bi neurri printzipioa argi azaltzen da

datuak alderantziz jartzen direnean. *Terrorista* hartzen dituztela erabaki delako herri batzuk bonbardatu behar diren logika erabili behar izatera, ondorioz, Aljeriak ere Estatu Batuek, Alemania eta Britainia Handiak bonbardatu beharko lituzke, Aljeriako terrorista islamikoen buruak aterpetzen dituztelako; Britainia Handiak Irlandan bota beharko lituzke bere bonbak, eta Espainiak gauza bera egin beharko luke, adibidez, Frantziar eta Mexikon. Azken batean, terrorismoak beldurra eta heriotza zabaltzen baditu, nolatan azaldu palestinar haurrari, irakiarrari, sudandarrari edo, egun, afganiarrari estatubatuarrek eta israeldarrak berak ez direla terroristak, beren herriak bonbardatzen ari dira eta.